



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 13a

19. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa osoan, hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-24/MOC-00023. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen beharrianak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organizazioekin hitz eginda. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuaren eta Europako erakundeen aitzinean salatu ditzan Europako Itun Berdea nahiz itun horrek Espainiako ekonomiari begira izan dituen ondorio larriak. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (5. or.).
- 11-23/MOC-00025. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea aldezteko neurriak har ditzan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-24/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herentzia publiko unibertsala sor dezan Nafarroan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (8. or.).

#### G S A I L A:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).
- 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).
- 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (11. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

## **11-24/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroa osoan, hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroa osoan, hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernua premia-tzen da Nafarroa osoan, hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan

Zioen azalpena

Euskararen Adierazleen Sistema sortu zenean, euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datu estatistiko ugari jarri ziren adituen nahiz herritarren esku. Datu horiek –hamarkadak joan

dira horiek jasotzen direnetik– oso baliagarriak dira euskararen egoera eta bilakaera ezagutzeko ez ezik, hizkuntza-politikak taxutzeko eta horiei buruz eztabaidatzeko oinarri faktiko gisa baliatzeko ere.

Halere, dauzkagun datuak, asko diren arren, ez dira aski. Adibidez, ez daukagu udalei buruzko datu sistematiko eta gaurkoturik, eta horrek zaildu egiten du xeheki ezagutzea euskarak zer bilakaera duen herriz herri. Bereziki, ez daukagu datu zehatzik jakiteko herritarrek zer zerbitzu eskatzen dituzten euskaraz –publikoak nahiz pribatuak– administrazioan, kulturean, osasungintzan, hezkuntzan, eta abar. Nafarroa osoari, hizkuntza-eremuei nahiz eskualdeei buruzko datuak ezagutzea oso baliagarria izanen litzateke, gure lurraldeko eskualdunen erkidegoari baliabideak eta zerbitzuak eskaintzeko edo diruz laguntzeko erreferentziazko irizpide gisa baliatzeko orduan.

Bestalde, datu horiek modu zintzo, zorrotz eta garden batez jaso eta herritar guztien esku jar-tzeak lagunduko luke hizkuntza-politikari buruzko eztabaidetan jarrera esentzialistak gainditzen eta gure erkidegoko sentsibilitate guztien artean abia-buru komun bat bilatzen hizkuntza-politikaren helburuei dagokienez eta, bereziki, gure errealitate soziolinguistikoa ikusita jakiteko zer giza baliabide eta baliabide ekonomiko diren beharrezkoak.

Erabaki-proposamena:

1) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du –bereziki, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua eta Euskarabidea– Nafarroan administrazioaren, kulturaren, osasungintzaren, hezkuntzaren, aisiaren eta gisako euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan. Sistema

horrek, betiere, Nafarroa osorako, Nafarroako hizkuntza-eremuetarako eta eskualdeetarako datu globalak eskaini beharko ditu.

2) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Euskararen Kontseiluari eta Nafarroako Parlamentuan ordezkatura dauden indarrei kontsulta egin diezaien euren ustez interes publikoak izan daitezkeen adierazleak jasotzeko buruz.

3) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko departamentu eskuduna premiatzen du euskarazko zerbitzuen eskaerari buruzko adierazle horien mikrodatu estatistikoak, bai eta datu horiek ponderatzeko baliatzen diren irizpideak ere, publikoak izan daitezen, bai Euskarabidearen atarian, bai Nastat-en atarian.

Iruñean, 2024ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **11-24/MOC-00023. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen beharrezkoak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organizazioekin hitz eginda**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen beharrezkoak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organizazioekin hitz eginda.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2022ko abuztuaren 31n, Europar Batasunak onetsi zuen 2021-2017 aldian Europar Batasuneko Nekazaritza Politika Bateratuaren laguntzak jasotzeko gure herrialdean indarrean egon beharreko arauak aplikatzeko plan estrategiko nazionala (NPEPE).

Onetsitako planak 2021eko urtarrilaren 1ean sartu behar zuen indarrean, baina 2023ko urtarrilaren 1ean hasi zen aplikatzen, haren oneste-prozesuan izandako atzerapenak tarteko. Atzerapen horiek ez dute zerikusirik nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearekin, bera baita kaltetu bakarra gizartearentzat hain garrantzitsuak diren elikagaiak ekoizterakoan Espainiako nekazaritzari aplikatzen zaizkion arauen aldaketa etengabe eta nahasgarrien ondorioz.

NPEPEa onetsi zen Espainiako autonomia-erkidegoen aho batezko babesik gabe, bai eta nekazaritzako antolakunde nagusien eta gure herrialdeko kooperatiben ordezkarien babesik gabe, ulertzen baitzuten plana ez zela egokitzen sektorearen beharretara eta bertan jasotzen diren arauak kaltegarriak eta gizartearentzako elikagaien ekoizpen jasangarriarekin bateraezinak eta kontrajarriak direla.

Sektore osoak eta autonomia-erkidegoek eskatuta, NPEPEa 2023ko kanpainen aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izan zen planak berak exijitzen dituen arauetan zenbait beharpen eta salbuespen egitea, lehorte-egoera eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearekin zerikusirik ez duten beste inguruabar batzuegatik. Hala,

neurri batean lasaitu egin ziren sektoreak bete beharreko baldintzak, ezinezkoa baitzen haiek betetzea.

Hala eta guztiz ere, urte-tartearen lehen urtean, 2023an, NPEPEaren aplikatzearen emaitzak ezin okerragoak dira ustiategiaren errentagarritasunari dagokionez, bai eta laguntzak kobratzeko exijitzen dituen arauen bideragarritasun ekonomikoari dagokionez ere.

Hori duela gutxi egiaztatu ahal izan da, iazko urriaren 16tik aurrera, egun horretan zenbait autonomia-erkidegok NPEPEak jasotzen dituen laguntzetako batzuen –errentarako oinarritzako laguntza, birbanatzeko ordainketa eta nekazari gazteenetzako ordainketa– % 70a aurreratu baitzuten eta onuradunek egiaztatu baitzuten kontzeptu horien egiaztatu jasotako kopuruak oso urrun zeudela aurreko oinarritzako ordainketaren araubide-sistemarekin edo 2014-2020 aldiko ordainketa berdearekin jasotzen zizutenetatik.

Zenbait autonomia-erkidego –Extremadura, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, eta abar– oso kritikoa izan dira NPEPEaren aplikazioaren lehen urtearen emaitzekin, eta ziurtatu dute aurreko aldiarekiko funtsen galera, NPEPEaren eskakizunak betetzeko ezintasuna dela-eta.

Nekazaritzako Ministerioak argitara eman zituen ekoarabideen laguntzen esparruan laguntza horien eskatzaileei ordainduko zaizkien zenbatekoak, eta egiaztatu daitezke kopuruak Ministerioak kalkulaturikoak baino nabarmen txikiagoak direla, eta horrek eskatzaileen diru-sarreraren jaitziera dakar.

Gaur egun, Nekazaritza Politika Erkidearen laguntzek nekazaritzako eta abeltzaintzako sektore desberdinen errentan duten pisua, Nafarroan eta herrialde osoan, zenbateko osoaren % 30 eta % 40 artean dago, eta gaur egun sektore horietako asko bideraezinak dira NPEaren laguntzen diru-sarrerarik gabe.

Nafarroan, Espainiako Gobernuak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsaren (NBEF) bidez, Nekazaritza Politika Erkidearen 2023ko kanpainako laguntza zuzenei dagozkien 84 milioi euro baino gehiagoren ordainketa koordinatu du. 2023-2027 aldiko NPE berriaren lehen ordainketak dira, eta 3.475 milioi eurotik gora utzi ditu

autonomia-erkidego guztientzat. Hau da, Espainiara iristen diren NPEaren laguntzetatik % 2,42 besterik ez dagokio Nafarroari.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreak funtsezko garrantzia du gure erkidegoko ekonomiarentzat, eta landa eremuetan ekonomia-aren motor bakarra izaten da batzuetan, populazioa lurraldean mantentzeko gai dena. 2024ko urtarrilean, Nafarroako lehen sektoreko 30.663 langabetu erregistratu ziren Errealitate Sozialaren Behotik. Langabe horietatik, % 58,9 gizonezkoak dira eta % 41,1 emakumezkoak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektore osoa, bere ordezkarien bitartez, eta NPE laguntzak jasotzen dituzten gure herrialdeko autonomia-erkidego garrantzitsuenetako batzuk erabat desados agertu dira egungo NPEPEa gure herrialdean aplikatzearen emaitzarekin, funtsen galera egiaztatu baita bertan exijitzen diren arauak betetzeko ezintasunaren eta bateraezintasunaren ondorioz, eta horrek nekazaritzako eta abeltzaintzako sektore guztien errenten gutxitzea dakar eta ustiategi gehienak bideraezinak bihurtzen dira.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak ez du ezer egin gabe geratu behar gure erkidegoko sektore garrantzitsuenetako bat hondatzen ari denean bete ezinezko arauak aplikatzearen ondorioz, horien eraginez nabarmen murrizten baita gure nekazarien eta abeltzainen ekoizpen-ahalmena eta aldi berean NPEaren laguntzen galera esanguratsua nozitzen baitute.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dut:

1. Nafarroako Parlamentuak babes baldintzagabea adierazten die nekazari eta abeltzainei eta sektore primarioak Nafarroako Foru Komunitatean duen izaera estrategikoa blindatzeko lan egin du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari prestatzen duen sektorearen beharriak jasoko dituen tala-plan berri bat presta dezan nekazaritzaren arloko erakundeekin hitz eginez.

3. Espainiako Gobernuari exijitzen dio NPEPE erabat alda dezan, sektoreko ordezkariarekin eta autonomia-erkidegoekin adostuta.

Iruñean, 2024ko otsailaren 7an

Eleduna: Javier García Jiménez

## **11-24/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernuaren eta Europako erakundeen aitzinean salatu ditzan Europako Itun Berdea nahiz itun horrek Espai-niako ekonomiari begira izan dituen ondorio larriak**

*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernuaren eta Europako erakunde-en aitzinean salatu ditzan Europako Itun Berdea nahiz itun horrek Espainiako ekonomiari begira izan dituen ondorio larriak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikia dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Europako Itun Berdeak interes nazionaletarako izan dituen ondorioei eta Espainiako lehen sektorea defendatzeari buruzkoa, 2024ko otsailaren 15eko osoko bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Urteetan zehar, Europako erakundeetan adostasuna egon da Europar Batasuna osatzen duten nazioen eta europarren ekonomia eta oparotasuna sostengatzen dituzten sektoreen interesen aurkako legeak egiteko. Zalantzarik gabe, lehen sektorea da Bruselako burokratek inposatu eta Espainiako ondoz ondoko gobernuek bere egin duten agenda berdeak gehien kaltetutako sektoretako bat. Europako Itun Berdea neurri legalen, politikoaren, ekonomikoaren eta finantzarioaren multzoa da, zeinen bidez Europar Batasuneko erakundeak estatu kideetako ekonomiak eraldatzeko agenda

bat ezartzen ari baitira, helburu klimatiko batzuetara egokitzeko asmoz. Helburu horietako garrantzitsuenen –itun osoaren frogaharria– da 2050erako berotegi-efektuko gasen isurketa garbiak zero izatea.

Estrategia hori espainiarrei bizkar emanaz egin da; alabaina, horiek dira Europako Itun Berdearen murrizketa, arau eta ekintzen ondorioz latzenak pairatzen ari direnak. Ituna garatze aldera, gure ekoizleei zenbait exigentzia eta inposaketa ezartzen dizkien arau mordoak egin dira, eta horrek gure lehen sektorearen ekonomia eta bideragarritasuna oztopatu du. Horien artean aipagarriak dira gure nekazari eta abeltzainek egunero pairatzen dituzten Baserritik Mahaira Estrategia eta 2030erako Biodibertsitate Estrategia.

Nekazaritza-sargai tradizionalen, ongarrien, antimikrobianoen eta pestiziden erabilerari Euro-par Batasun osoan ezarritako murriztapenen ondorioz, gure nekazaritza-ekoizpena eta esportazio-merkatuetan dugun lehiakortasuna murrizten ari dira, eta, horren ondorioz, prezioak igo egingen dira eta familiek pairatu beharko dute hori. Horrez gain, estrategia horiek tradizionalak sektore desberdinei laguntzeko mekanismoak izan direnak hertsapen-neurri gisa erabili dituzte haien agenda ideologikoak implementa ditzaten. Hori horrela, nekazaritza-jardueren oinarri izan den eta lehiakortasuna bultzatzeko balio izan duen NPEa pixkanaka baztertzen ari dira, laguntzak irizpide ideologiko ekologistekin lotuta daudelako edo, NPEaren azken eguneratzearen kasuan bezala, nekazaritzako azalera produktiboaren % 10 lehen-goratu behar delako. NPE berriak nekazari eta abeltzain espainiarrentzat neketsuak diren helburuak ezartzen ditu. Aurrekontuaren % 40 ingurumen-helburuetara bideratzen duen NPE bat ez da egokiena sektorea babesteko gaur egun bizi dugun larrialdi ekonomikoko testuinguruan. Neurri horrek jada ondorio kaltegarriak izan ditu 2023ko urritik abendura bitartean: NPEak Espainiako landa-eremuari zuzenean eman dizkion laguntzek 580 milioiko jaitsiera izan dute, aurreko urteko epe berarekin alderatuta.

Lehen sektoreari ematen zaion laguntza ekonomikoa murriztearekin batera, zerga berriak, lege-trabak eta labirinto burokratikoak ezarri dira

pixkanaka, eta, horren ondorioz, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako jarduerak desageratzeko zorian daude, kostuak handitu direlako eta erakundeek abandonatuta utzi dituztelako. Era berean, 2020an onetsitako Itun Berdearen ebazpenak animalien ongizateari buruzko arauak gogortzea bultzatu zuen, eta horiek ere nekazaritza-elikagaien industriak bere gain hartzen ditu.

Hori gutxi balitz, egoera hori hirugarren herrialdeetatik produktuak kontrolik gabe inportatzeko permisibitatearekin konbinatzen ari da; eta, gainera, produktu horiek ez dituzte betetzen gure ekoizleek bete beharreko araudiak, bai ingurumenekoak, bai kalitatekoak, bai lan-erregulaziokoak. Ez da koherentea Europako lehen sektorerako heretsapen-neurriak eskatzea, eta, aldi berean, eskakizun horiek betetzen ez dituzten herrialdeetatik datozen produktuak sartzeko baimena ematea, Europar Batasuneko produktuekiko lehia desleiala sortuz.

Hamarkadetan zehar, gure lehen sektorea desegiteko prozesu bat garatu da, gaur egun 2030 Agendaren eta Europako Itun Berdearen postuluak onartzean zehaztu dena.

Hain zuzen, itun horren aurka matxinatu dira Europako eta Espainiako nekazariak. Landa-eremuaren jasangarritasuna eta gutxiago kutsatzen duten energia-iturrietaranzko trantsizioa ezin dira inola ere gauzatu Espainiaren eta gure lehen sektorearen interesak alde batera utzita. Horren mende dago familia askoren mantenua. Agenda ideologikoez ezin dute inolaz ere egon espainiarren ongizatearen gainetik.

Azaldutakoaren arabera, beharrezkoa da lehen sektoreari lotutako ekoizpen-unitateen eta industrien askatasuna eta bideragarritasun ekonomikoa erraztuko duten politikak sustatzea, landa-eremuaren iraupena ziurtatzea eta gure elikadura-subiranotasunarekin amaitu nahi duten eta hiruga-

rren herrialdeen mende jarri nahi gaituzten inposizio ideologiko guztiekin amaitzea.

Hori guztia kontuan hartuta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Gobernuaren eta Europako erakundearen aurrean sala ditzan Europako Itun Berdea eta horrek Espainiako ekonomian, bereziki lehen sektorean, izan dituen ondorio larriak.

2. Bere eskumenen esparruan, Europako Itun Berdean eta 2030 Agendan inspiratutako politika guztiak indargabetzea susta dezan, bereziki Base-rritik Mahaira Estrategia eta Biodibertsitatearen aldeko Estrategia.

3. Ingurune naturalaren benetako kontserbazioa bultzatzea dezan, gure lehen sektorearen jardura babestu eta errespetatuko duena.

4. Behar diren neurriak har ditzan, autonomien eskumenen esparruan bermatze aldera gure elikadura-subiranotasuna, lehia desleiala ezabatzea eta Europar Batasuneko produktuen lehentasunaren printzipioa indartzea.

5. Hirugarren herrialdeekin egindako merkataritza-akordioak berrikustearen alde ager dadin, berehala eteteko gure ekoizleei inposatutako eskakizun fitosanitarioak betetzen ez dituzten produktuak inportatzeko aukera ematen dutenak, eta Espainiako Gobernuaren bidez agintari eskudunei eska diezaien gure lehen sektorea babesgabetuko duen merkataritza-akordiorik ez berresteko.

6. Babesa eta errespetua adieraz diezaien landa-eremutik haien bideragarritasuna arrisku larrian jartzen duten politika ekologisten berehalako amaiera eskatzen duten herritarren protesta eta aldarrikapen legitimoak.

Iruñean, 2024 otsailaren 8an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo



## 11-23/MOC-00025. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita lehen sektorea aldezteko neurriak har ditzan

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea aldezteko neurriak har ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernua premiatzeari buruzkoa lehen sektorea babesteko neurriak har ditzan, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta Landa Garapenerako eta Ingarumenerako Batzordean jarraipena egiteko.

Zioen azalpena

Aste honetan, Nafarroako errepide askotan eta hiri nagusietarako sarbideetan trafiko-mozketak eta auto-ilarak egon dira, nekazari eta abeltzainen protesten ondorioz.

Mobilizazioak sektorearen erakunde tradizionalak –UAGN eta EHNE– alde batera utzita deitu dira, eta gerora, izan duten garrantzia ikusita, horiek babestu eta parte hartu beste biderik ez dute izan.

Protesta horien bultzatzaileak tokiko elkarteak eta plataformak dira, baita partikular gisa sare sozialen bidez antolatu diren nekazariak ere. Laburbilduz, horren guztiaren atzean sektore oso bat dago –berdin da pentsaera–, zeinak soilik bilatzen baitu hari bizkarra ematen tematuta dagoen gizartea elikatzea.

Honako hauek dira denek partekatzen dituzten aldarrikapenak: burokrazia murriztea, Nekazaritza Politika Erkidea erreformatzea eta elikadura-katearen legea bete dadila.

Protestak Europako ikuspegitik ere uler daitezke; izan ere, aldarrikapenetako asko Europa osoko kaleetara atera diren nekazarien berberak dira. Energiaren kostuak handitzearekin batera, Bruselak ez du ulertu elikadura-subiranotasunaren errealitatea, eta nahiago du herritarren aurkako neurriak hartu hirugarren herrialdeetatik inportatzea lehenesteko, berme eta eskakizun nahikorik gabe.

Nekazariak horren aurka daude, eta lehia desleiala aipatzen dute, erabat justifikatuta dagoena Europar Batasunaz kanpoko beste herrialde batzuetako produktuei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Gobernua premiatzen dugu benetan lan egin dezan Europar Batasunak eta gure erakundeek neurriak har ditzaten segurtasun edo ingurumen gaietan, besteak beste, eskakizun berberak betetzen ez dituzten Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako produktuak sartzeari dagokionez, gure sektorearen biziraupena arrisku larrian jartzen baitute.

– Nafarroako Gobernua premiatzen dugu ez dezan baimendu dirua galduz saltzea, eta aplikatu dadin dagoeneko garatuta dagoen Elikadura-katearen Legea modu eraginkorrean eta katearen maila guztietan.

– NPEaren eta argitaratu diren edo garatzen ari diren Europako gainerako araudiak lehenbailehen malgutzeko premiatzen dugu, sektorearen benetako egoera kontuan hartzeko eta galga bat ez izateko, eta garapenerako tresna bihurtzeko.

– Premiatzen dugu gure sektorea Nafarroako Foru Komunitatean jasaten ari den gehiegizko zama fiskala arindu dadin.

– Nafarroako Gobernua premiatzen dugu Nafarroako Ubidearen zabalpena amaitu eta bigarren fasea behingoz has dezan, Nafarroako Gobernuak biak galditu baititu.

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita herentzia publiko unibertsala sor dezan Nafarroan

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita herentzia publiko unibertsala sor dezan Nafarroan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Berdintasuna eta askatasuna beti izan dira demokrazia liberalen helburu komunak, baina, gaur egun, helburu kontrajarritzat hartzen dira. Dirudienez, berdintasunak berekin dakar askatasunaren hertsadura, eta, beraz, bi helburuetatik zein lehenetsi hautatu behar da.

Hala ere, bi helburuak guztiz bateragarriak dira, eta horren erakusle da gero eta gutxiago aipatzen den printzipio bat, baina era berean bizirik dirauena, Europako tradizio politiko hegemonikoaren artean (demokristauak, sozialdemokratak, liberalak, berdeak eta ezkerrekoak) adostasun zabala sortzen zuena: aukera-berdintasuna.

Doktrina liberalaren arabera, aukera-berdintasuna da, meritu- eta gaitasun-kontuengatik, ondorengo desberdintasuna pertsonaren jardunaren emaitza izanzen litzatekeen puntua, eta, beraz, ikuspegi moraletik erabat justifika daitekeena.

Gure taldean oso kritikoak gara ikuspegi horrikin, sendo baieztatzen baitugu pertsonen duintasuna beti bermatu behar dela; aldi berean, ekita-

tea defendatzen dugu, eta ez berdintasuna abiapuntu gisa; halaber, gure ustez, desberdinkeriak azaltzen dituzten eragile nagusiak egiturazkoak dira, eta ez banakakoak. Hala ere, uste dugu aukera-berdintasuna aurrerapen sozial garrantzitsua izanzen litzatekeela, eta agian, kontsentsuzko bakanetako bat legebiltzar honetan dauden indar demokratikoen artean. Beraz, aurrerapen inklusibo eta egonkorrak bultzatu ahal izateko, printzipio hori aldarrikatzen dugu gaur, aukera-desberdintasunaren kausa nabarmenetako bat desagerrarazi nahi duen proposamen bat defendatzeko: jaraunspena.

Jaraunspen pribatuak beti izan dira gizabanako-talde jakin batek besteen gainean dituen pribilegioak babesteko mekanismo bat. Historian zehar hainbat modutan agertu dira: eskubide edo pribilegio legalen jaraunspenak; noble-tituluen jaraunspenak; boterearen jaraunspen formalak; eta jaraunspen ekonomiko hutsak, gaur egun ohikoena (baina ez bakarrak).

Argi dago jaraunspen ekonomiko pribatuak desberdintasunak betikotzeko mekanismo bat direla, kasu honetan familien artean batez ere; izan ere, Suitzako UBS bankuaren 2022-23ko Milioi Askoko Anbizioei buruzko azken Txostenak adierazten duen bezala, txostena egiten hasi zenetik, maila globalean milioi asko dituztenek lehen aldiz diru gehiago pilatu dute jaraunspenengatik enpresa-ekimenengatik baino. Hasierako desberdinkeria-egoeran dauden pertsona aberatsak ez dira gehien kezkatzen gaituen xede-biztanleria, baina badirudi datu adierazgarria dela jaraunspenek desberdintasun sozial globalean duten garrantzi-mailari buruz.

Hala ere, jaraunspenak ere oinarrizko mekanismo bat dira belaunaldi berriak gutxieneko abiapuntu batekin hasten direla ziurtatzeko. Hasieran laguntzarik izan ezean, gehiengoarentzat ezinezkoa litzateke negozio bat abiatzea, etxebizitza bat erostea, eta graduondoko titulu jakin batzuetan edo gaitasun handiko funtzionario-kidegoetan sartzea. Era berean, bizi-itxaropenean aurrera egiteak esan nahi du jaraunspenak, berez, bizitzaren fase helduan jasotzen direla, hain beharrezkoak ez direnean, eta askoz ere eraginkorragoak direla "bizirik egiten diren jaraunspenak" edo gurasoen dohaintzak, zeinak haien ahalmenaren mende ez ezik, borondatearen mende baitaude.



Horregatik guztiagatik, xede hartuta aukeraberdintasun handiagoa bermatzea, eta, aldi berean, jaraunspenak gazteek bizi-proiektu autonomo bati ekiteko eskubidea izateko tresna giltzarri gisa duen eraginkortasuna hobetzea, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Gobernua premiatzen dugu Nafarroan jaraunspen publiko unibertsal bat sor dezan, gutxienez 10.000 €-koa, eta Foru Komunitatean

bizi den edozein pertsonak 18 urte betetzean kobratuko duena.

– Nafarroako Gobernua premiatzen dugu oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga finalista bihur dezan, jaraunspen publiko unibertsala ordaindu ahal izanen duena.

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

#### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko otsailaren 29ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentariaren elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea**

#### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako

kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 29ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. José Iruetagoiena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kon-

tseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 29ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

